

ETBk bideo batean eman du fakultateko Erasmus ikasleen berri

2009/11/23

Igande iluntzean Euskal Telebista aukeratu zuenak albisteak ikusteko, albiste bat erreparatuko zuen, zelan ikusten gaituzten euskaldunak Erasmus ikasleek, HUHEZI fakultatean daudenek.

Minutu eta erdiko bideoa izan zen, Elixabete Garmendia kazetariak egina, eta bertan erakusten zen zelako ahaleginak egiten ari diren Erasmus ikasleek, aurten Europatik etorri diren 18 ikasleek, Euskal Herria eta bertako kultura ulertzeko, zerk harritzen dituen hemen eta zertan laguntzen diguten.

Erasmus ikasleekin batera, **Monika Madinabeitia** agertzen da, Euskal Kulturako irakaslea, **Txema Egaña**, nazioarteko harremanen arduraduna eta **Urko Kolomo** Garabide elkarteko arduraduna.

